



Zizur Nagusiko Udal Kultur Patronatuak antolatutako ikastaro eta prestakuntza-jarduerak.

Araudia

- Izen-emateak info-local telefonora deituta egin daitezke soilik: 948 012012, 08:00etatik 19:00etara. Dei horretan adierazi beharreko datuak: jarduera (hizkuntza zehaztu), izen-abizenak, NAN, jaiotze-data, telefono finkoaren eta mugikorraren zenbakia, posta elektronikoaren helbidea, kreditu-txartelaren zenbakia, kontu-korrontearen zenbakia (beharrezkoa den ikastaroetan: iraupen luzeko ikastaroak eta haur eta gazteei zuzendutakoak, ordainketa zatikatua badute). Dei batekin egindako izen-emate guztiak kreditu-txartel berean zordunduko dira.
- Udaletxeko Kultur Patronatuak eskaintzen dituen jarduera guztiak Zizur Nagusian edo Zizurko Zendeen erroldatutako pertsonen zuzenduta daude. Bestela ere izena eman nahi izanez gero, Kultur Zerbitzuak kudeatuko duen itxaron-zerrendan apunta daitezke. Leku libreak egonez gero, eskatutako jardueran izena eman ahalko dute.
- Eskaintako ikastaroek, ordutegiek eta aretoek aldaketak izan ditzakete, izen-emateen kopuruaren arabera. Ez badago izen-emate aski, eskaintza bertan behera geratuko da.
- Parte-hartzaile bakoitza izena eman duen talde horretara joan daiteke soilik. Hala ere, aldaketak onar daitezke, Kultur Zerbitzuan justifikatuz gero arrazoi laboralak direla eta aldaketa beharrezkoa dela. Enpresaren egiaztagiria aurkeztu beharko du.
- Ordainketa kreditu-txartelaren bidez egin nahi ez duen pertsonak Kultur Patronatuko kontu-zenbakiaren bidez egin dezake: ES09 3008 0066 8207 0255 2324. Kasu horretan, ordainketa-egiaztagiria aurkeztu beharko du Zizur Nagusiko Udaletxeko Kultur Zerbitzuan. Aurkezteko azken eguna 2017ko irailaren 22a izanen da.
- Haurrentzako eta gazteentzako ikastaroak: kuota bakarra. Ordainketa erraztu asmoz, haurrentzako eta gazteentzako iraupen luzeko ikastaroak bi epetan ordaindu ahalko dira: % 60 izen-ematea egiterako momentuan eta % 40 abenduan, banku-igorpen baten bidez.
- Helduentzako eskaintzen diren jarduerak, iraupen luzekoak, 3 kuotatan ordainduko dira (argazkigintza ikastaroetan izan ezik, bi kuotatan izanen baita): lehena izen-ematea egiteko momentuan eta beste biak banku-igorpeneren bidez egingen dira urtarrilean (1. hamabostaldian) eta martxoan (2. hamabostaldian).
- **Jarduerak urriaren 2tik aurrera hasiko dira.**

BAJAK ETA ITZULKETAK

- Beharrezkoa izanen da baja idatziz eskatzea Zizur Nagusiko Udaletxeko Kultur Zerbitzuan. Baja emateak ez du esan nahi ordaindutako kuota itzuliko denik.
- **Arrazoi mediko eta laboralengatik** itzuliko da soilik ordaindutako kuota. Behar den moduan justifikatu beharko da Kultur Zerbitzuan, medikuak edo enpresak igorritako dokumentua aurkeztuta.

Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Legearen 5. artikularekin bat, jakinarazten zaizu kultur jardueren kudeaketa eta informazio fitxategi bat dagoela. Bertan Zizur Nagusiko Udalaren Kultur Patronatuak egindako eta sustatutako kultur jardueren kudeaketa, informazioa eta gauzatzeko kontrola egingen da.

Ez da aurreikusi bilduriko datuen lagapena egitea eta, balizko lagapenik izanez gero, hura egin baino lehen zure baimena eman beharko duzu.

Fitxategiko arduraduna Zizur Nagusiko Udalaren Kultur Patronatua da. Fitxategietan sartzeko, datuak zuzendu eta ezabatzeke eta horien aurka jotzeko eskubideak udal egoitzan, Kultur Zerbitzuan, erabiltzen ahalko dira.